

“Miramos a Jesús con los ojos de María”

Queridos sacerdotes concelebrantes, enfermos que peregrináis a este Santuario, miembros de la Hospitalidad de Lourdes y demás voluntarios, peregrinos todos:

Nos disponemos a celebrar la Eucaristía en este entrañable lugar donde hace más de 150 años la Madre del Cielo se manifestó a Santa Bernadette. Sin duda, estamos viviendo el momento más intenso y entrañable de nuestra peregrinación diocesana: la celebración de la Santa Misa en la Gruta de Massabielle.

El lema de la peregrinación de este año es: “*Miramos a Jesús con la mirada de María*”. Y eso es precisamente lo que nos disponemos a hacer en este momento, en el que celebramos la Eucaristía en presencia de María. En este acto central de nuestra peregrinación, nos unimos espiritualmente al Congreso Eucarístico Nacional que se está celebrando este fin de semana en Toledo. También allí ha acudido una delegación de nuestra Diócesis, encabezada por uno de nuestros vicarios. Hemos de ser cada vez más conscientes de la centralidad de la Eucaristía en la vida de la Iglesia, pues no en vano, en ella se prolonga la Encarnación de Cristo y la actualización de su Muerte y Resurrección redentoras.

Supongo que muchos de los aquí presentes participasteis en las 24 horas de Adoración que recientemente tuvieron lugar en la Catedral del Buen Pastor de San Sebastián, uniéndonos de esta forma a la celebración del Congreso Eucarístico de Toledo. Permitidme compartir con vosotros una anécdota de aquel precioso día: Al terminar el turno de adoración que se reservó para los niños, se me acercó una madre con sus hijos, uno de los cuales se preparaba para hacer la Primera Comunión. La madre me advirtió de que el niño estaba en la edad de hacer muchas preguntas, de “esas” que no siempre es fácil contestar. Lo pude comprobar inmediatamente, pues el niño me preguntó sin miramiento: “*Señor obispo, ¿por qué la Virgen María no se quedó en el Pan de la Eucaristía como Jesús?*”.

¡Pues sí, ciertamente, parece que el niño está en la edad de hacer preguntas rebuscadas!... ¡Cosas de niños! Lo único que se me ocurrió decirle a aquel “pequeño teólogo”, es que hay cosas a las que nosotros no podemos responder y que Dios tiene razones que nosotros no entendemos... La verdad es que me quedé en blanco, porque no había ni tan siquiera imaginado una pregunta como esa en toda mi vida... Tengo que reconocer que la “ocurrencia” de aquel niño, después me ha hecho reflexionar en no pocos momentos; especialmente en la oración ante el Santísimo Sacramento. ¿Qué responder a su pregunta?:

1º.- **¡Son inseparables!**: Es importante tener en cuenta que aunque María no está presente en la Eucaristía de forma sustancial, con su cuerpo y su sangre, como lo está su hijo Jesús; sin embargo, sí está presente espiritualmente. Donde está Él está Ella, de la misma forma que donde está Ella, está Él. ¡Jesús y María son inseparables! Con un matiz importante: a María le gusta permanecer a la sombra –es lo que hizo durante toda su vida en la tierra- al mismo tiempo que goza cuando ve nuestra mirada dirigida hacia su Hijo.

2°.- **Ella nos conduce a la Eucaristía:** A tenor de lo que los Evangelios narran, María no estaba presente en el Cenáculo en aquella primera Eucaristía... Parece como si Dios le hubiese dado una vocación especial para conducirnos hacia la Eucaristía. Es como si a Ella la viésemos reflejada en la figura de aquel criado que envió el rey a los cruces de los caminos, para invitar a los transeúntes a asistir al banquete de bodas que otros habían rechazado (cfr. Mt 22).

Cuando escuchemos la voz de la Iglesia que nos recuerda la importancia de participar en el banquete eucarístico venciendo tantas tentaciones contrarias, tenemos que entreoír la llamada de María, que nos invita a acudir a su Hijo. Hay una estrecha conexión entre el *“Haced lo que Él os diga”* (Jn 2, 5) de María y el *“Haced esto en memoria mía”* (Lc 22, 19) de Jesús.

3.- **Embajadora de su Hijo:** El Evangelio que hemos escuchado, en el que se narra la Visitación de María a su prima Isabel, nos da también una clave importante para responder a la misteriosa pregunta de aquel niño. María es como una custodia de metal precioso que lleva en su seno a Jesús... Ella es cristal plenamente transparente, que muestra a su hijo a los ojos del mundo.

Además de llevarnos a la Eucaristía, Ella ha recibido también el cometido de llevar a su Hijo donde más se le necesite. María es portadora del consuelo de Cristo a todos los pobres de espíritu.

4.- **Reproducir la imagen de María:** Intentando responder a aquella pregunta infantil que nos ocupa, a la vez ingenua y misteriosa, descubro una oración sorprendente escrita por la fundadora del movimiento de los Focolares, Chiara Lubich, recientemente fallecida: *“¿Por qué quisiste quedarte en la tierra, en la dulcísima Eucaristía, y no encontraste un modo para dejarnos también a María? En el silencio, Jesús parecía responder: No la traje porque quiero volver a verla en ti”*.

Supongo que esta respuesta de Chiara Lubich le hubiese sorprendido a aquel niño tanto como a mí: Jesús espera nuestra plena identificación con María... También nosotros hemos de ser inseparables de Cristo, al mismo tiempo que sus introductores y embajadores...

Hemos comentado en un primer momento el lema de nuestra peregrinación: *“Mirar a Jesús con la mirada de María”*. Ciertamente, fuera de la mirada de María no podremos adentrarnos en el misterio de Cristo. Nos quedaríamos en la superficie.

Pero, por su parte, también Jesús nos mira con la mirada de su Madre. Más aún, cuando fija sus ojos en nosotros, sueña con encontrar reproducida la figura de su Madre.

Versión en euskera:

“Mariaren begiradaz Jesusi begira”

Apaiz meza-emaile adiskideok, Santutegi honetara erromes etorri zareten Lourdesko Hospitalitateko kide gaixook eta gainerako borondatezkook, eta erromes guztiok:

Eukaristia ospatzera goaz; hain maitagarria dugun leku honetan ospatu ere, hemen azaldu baitzitzaion Zeruko gure Ama Santa Bernardetteri orain 150 urte pasatxo. Zalantzarik gabe, hau dugu elizbarrutiko gure erromesaldiko unerik sakonena eta bihozkorrena: Meza Santuaren ospakizuna Massabielleko Haitzuloan.

Erromesaldiaren aurtengo goiburuak dio: “*Mariaren begiradaz Jesusi begira*”. Hori da, hain zuzen, Mariaren aurrean Eukaristia ospatzen ari garen une honetan egin nahi duguna. Gure erromesaldiko ekitaldi nagusi honetan, bat egiten dugu espirituz, asteburu honetan Toledon ospatzen ari diren Eukaristi Biltzar Nazionalarekin. Han ere bada gure Elizbarrutiko ordezkariak, gure bikarioetako bat buru dela. Eliz bizitzaren erdigunea da Eukaristia; gero eta ohartuago egon behar dugu horretaz. Izan ere, Eukaristian bizirik jarraitzen du Kristoren gizon egiteak eta gaurkotu egiten da haren heriotza eta berpizte salbatzailea.

Zuetako askok parte hartu zenuten, noski, Donostiako Artzain Onaren gotzain-elizan, duela gutxi, egin genuen 24 orduko gure Jaunaren Gurtzan. Horrela, bat egin genuen Toledoko Eukaristi Biltzarraren ospakizunarekin. Utz iezadazue egun eder hartan gertatutako pasadizo bat esaten: haurrentzat gordea zegoen gurtzaren txanda bukatzean, ama bat inguratu zitzaidan bere seme-alabekin; seme horietako bat Lehen Jaunartzea egiteko prestatzen ari zen. Amak jakinarazi zidan “galdera asko” egiteko adinean aurkitzen zela bere seme hura, erantzutea beti hain erraza ez zen horietako galderak, alegia. Neure begiz ikusi ahal izan nuen hori berehala, haurrak inolako lotsarik gabe galdera hau egin zidanean: “*Gotzain jauna, Andre Maria zergatik ez zen, Jesus bezala, eukaristiako ogian gelditu?*”

Egia zen; haurtxo hura galdera bihurriak eta zailak egiteko garaian aurkitzen zen!... Haurren kontuak! “Teologo txiki” hari erantzutea bururatu zitzaidan gauza bakarra izan zen badirela gauzak guk erantzuten ez dakizkigunak eta Jainkoak badituela bere arrazoiak guk ulertzen ez ditugunak... Kontua da, ni erantzunik gabe gelditu nintzela egiaz, ez bainion neure buruari sekula horrelako galderarik egin... Baina aitortu behar dizuet, haurtxo haren “ateraldiak” gogoeta asko eginarazi didala geroztik; batez ere, gure Jaunaren aurrean otoitzean egon naizenean. Nola erantzun galdera horri?:

1. **Ezin dira biak bereizi!** Kontuan izan beharreko lehenengo ñabardura garrantzitsua zera da: Maria Eukaristian substantziaz edo funtsezko eran, bere gorputz-odolez, presente ez badago ere beraren Seme Jesus dagoen moduan, presente dago, ordea, espirituz. Jesus dagoen tokian, han dago beraren Ama Maria ere; eta alderantziz, Maria dagoen tokian, han dago Jesus ere. Ezin dira biak bereizi! Baina bada kontuan izatekoa den garrantzi handiko ñabardura bat: itzalean bezala gelditzea du Mariak gogoko; hala egin zuen bere bizitza osoan; baina poz hartzen du, guk beraren Semeari begiratzen diogula ikustean.

2. **Andre Mariak bideratzen gaitu Eukaristiara:** Ebanjelioek esaten digutenaren arabera, Andre Maria ez zegoen afaltokia deritzan lekuan lehenengo Eukaristia hartan... Badirudi, Jainkoak halako bokazio berezia eman ziola, “Eukaristiara bideratzen gaituena” izatekoa. Bada Ebanjelioetan erregea, ezteietako jai-otordura gonbidatuak izan ziren batzuek uko egin ziotela eta, bidegurutzetara, han aurkitzen dituen bidariak gonbidatzera, morroia bidaltzen duena (ik. Mt 22). Esango genuke, morroi harengan irudikatua azaltzen dela Maria.

Kontrako hainbat tentaldi gaudituz, Eukaristiako jai-otorduan parte hartzeak duen garrantzia gogorarazten digun Elizaren deia entzuten dugunean, deika ari zaigun Andre Mariaren ahotsa entzun behar dugu hor tartean, bere Semearengana joateko gonbidapena egiten digun ahotsa. Lotura estua dago, hain zuzen, bi esaldi hauen artean: Mariaren “*Egizue berak esaten dizuena*” (Jn 2, 5), batetik, eta Jesusen “*Egizue hau nire oroigarri*” (Lk 22, 19), bestetik.

3. Bere Semearen mezularia: Entzun dugun Ebanjelioak ere, Maria bere lehengusu Elisabeti Ikustaldi egin zionekoak, alegia, garrantzi handiko giltza ematen digu haur haren galdera misteriotsuari erantzuteko. Metal finez egindako kustodia baten antzekoa da Maria, Jesus bere erraietan daramala... Guztiz garbia eta gardena den kristala da bera, bere semea munduari begi aurrean jartzen diona.

Eukaristiara bideratzen gaituena izateaz gainera, beste eginkizun bat ere hartu du Mariak: Jesus bere beharrik handiena dagoen lekura eramatekoa. Gogoz behartsu diren guztiei Kristoren kontsolamendua eramaten diena da Maria.

4. Andre Mariaren irudia berregin: Aipatu dugun haurraren galderari –aldi berean xumea eta misteriotsua den galderari– erantzun nahian nenbilela, hil berria den Chiara Lubich Focolareen mugimenduaren fundatzaileak idatzitako otoitz harrigarri batekin egin dut topo: “*Zergatik nahi izan duzu Lur honetan gelditu, guztiz ezitia den Eukaristian, eta ez duzu Maria ere guri uzteko modurik aurkitu? Isiltasunean, bazirudien Jesusek erantzuten zuela: Ez nuen ekarri, berriro ere zukan ikusi nahi dudalako...*”

Chiara Lubich-en erantzun honek harriturik utziko zukeela pentsatzen dut mutiko hura, ni neu utzi ninduen bezala; gu Mariarekin guztiz bat eginik egotea nahi du Jesusek... guk ere bereizi ezinak izan behar dugu Kristogandik, eta,aldi berean, berarenganako bide-erakusle eta haren mezulari...

Hasieran aipatu dugu gure erromesaldi honetako goiburua: “*Mariaren begiradaz Jesusi begira*”. Egiaz ezin barneratu ahal izango dugu Kristoren misterioan Mariaren begiradarekin ez bada. Axalean geratuko ginатеke.

Jesusek berak ere bere Amaren begiradarekin begiratzen digu. Gehiago oraindik, bere begiak gukan jartzen dituenean, bere Amaren irudia gukan berregina ikusi nahi du.